

9. GAIA Populazioaren egitura

- 9.1- Sexu-egitura.
- 9.2- Adin-egitura. Diagrama triangeluarra.
- 9.3- Sexu- eta adin-egitura. Biztanle-piramideak.
- 9.4- Zahartze demografikoa. Kausak eta ondorioak.

9.1- Sexu-egitura

- Maskulinitasunaren arrazoia (M_r) → Gizonak zati emakumeak.

$$M_r = \frac{G}{E} \times 100$$

- Maskulinitasunaren proportzioa (M_p):

$$M_p = \frac{G}{G + E} \times 100$$

Sexu-egitura

- Sexu araberako osaeran eragina duen faktoreak:
 - Jaiokuntza: mutilak neska baino gehiago jaiotzen dira.
 - Hilkortasuna: gizonen artean, hiltzeko probabilitatea handiagoa da
 - Migrazioak: migrazio korronteek sexu baten pisua bestearena baino altuagoa izan dezakete.
- Sexu-arrazoiaren eragina:
 - Jarduera-egituran.
 - Ezkonkortasunean, eta ondorioz, ugalkortasunean eta jaiokuntzan.
 - Migrazio fluxuak bultzatzen dezake.

9.2- Adin-egitura

- **Proporzioak**
 - Ehunekotan adierazten dira
 - Adin talde desberdinek populazioarekiko duten pisua adierazten dute.
 - Balio dute
 - Zahartze dinamikak aztertzeko
 - Demografi abagune konkretu bat modu sintetiko baten bitartez baloratzeko
 - Populazioa taldekatu ahal dugu adinaren arabera: urteka, bost urteka, adin-talde nagusiak (19 urte baino gutxiagoak, 20-64, eta 65 eta gehiagokoak)

Adin-egitura

- Zaharren Proporzioa

$$Zpz. = \frac{P_{t,>65}}{P_t} \cdot 100$$

- Helduen Proporzioa

$$Hpz. = \frac{P_{t,20-64}}{P_t} \cdot 100$$

- Gazteen Proporzioa

$$Gpz. = \frac{P_{t,0-19}}{P_t} \cdot 100$$

Adin-egitura

- Beste neurri batzuk erabiltzen dira, adb. Gaztetasun eta Zahartzaroaren Indizeak: konparatzen dituzte adin talde dinamikoenak euren artean.
 - Baliagarriak dira balorazio ekonomikoak egiteko, gizarte laguntza zerbitzu eta arreta garrantzitsuenak behar dituzten adin taldeak baitira.

Adin-egitura

- Gaztetasunaren Indizea

$$Gi = \frac{P_{0-19}^t}{P_{65+}^t} \cdot 100$$

- Zahartzaroaren Indizea

$$Z.indizea = \frac{P_{65+}^t}{P_{0-19}^t} \cdot 100$$

Adin-egitura

- Dependentzia Indizeak edo Tasak

– Dependentzi Indizea

$$Di = \frac{P_{0-19}^t + P_{65+}^t}{P_{20-64}^t} \cdot 100$$

– Zaharren Dependentzi Indizea

$$ZDi = \frac{P_{65+}^t}{P_{20-64}^t} \cdot 100$$

Adin-egitura

- Populazio Aktiboaren Gaztetasun Indizea

- Aktiboaren kolektiboaren zahartze gradua adierazten du

$$Gi_{pa} = \frac{P_{16-39}^t}{P_{40-64}^t} \cdot 100$$

- Populazio Aktiboaren Eraberritze Indizea

- Erlazionatzen ditu, aktibitatera gehitzen direnak, ateratzeaz daudenekin.
- Neurtu nahi du populazio batek jubilatzeko ari diren pertsonak ordezkatzeko duen ahalmena

$$Ei_{pa} = \frac{P_{16-29}^t}{P_{55-64}^t} \cdot 100$$

Adin-egitura

- Bizitza-luzearen Indizea

- Zahartze fenomenoaren adierazle espezifikoa da. Zaharren taldearen osaera adierazten du.

$$Bi = \frac{P_{75+}^t}{P_{65+}^t} \cdot 100$$

Adin-egitura


- Bataz-besteko adina

$$\bar{x} = \frac{\sum (x + \frac{1}{2}n) \cdot P_x}{P_t}$$

Diagrama triangeluarra

- Grafiko bat non aldagai baten (adb., adinaren) hiru alor (hiru adin-talde nagusiak: gazteak, helduak eta adinduak) irudikatzen dira. Baliagarriak dira:
 - Denboran zehar, populazio baten adinkako egitura aztertzeko.
 - Data jakin batean, populazio batzuen egiturak konparatzeko.


Diagrama triangeluarra




Adin eta sexu araberako egitura

- Piramide demografikoak
- Maiztasun diagrama da, zehazki, barra bikoitza duen grafikoa
- Adin eta sexu taldeen datuak irudikatuzen ditu
- Biztanleriaren egitura aztertzeko balio du
- Piramide bakuna edo konplexua izan daiteke
- Ardatz bertikala eta horizontala eskala bat gorde behar dute egin beharreko interpretazioa zuzena izan dadin: zabalera altueraren 2/3 izan behar zela.


Profilaren irregulartasunak




Biztanleriaren piramideak eta garapena




Afganistan




Alemania



Arabia Saudi



Bulgaria



9.4- Populazioaren zahartze prozesua

- Zaharren proportzioa handitzen denean gertatzen da. Beste adin-talde nagusien tamainarekin aldatzen da.
- Zahartzearen kausak:
 - Ugalkortasuna: bere jaitsierak talde gazteak txikitzen ditu. Piramidearen oinarritik zahartzea.
 - Hilkortasuna: bizirik irauteko probabilitatea handitzearekin eta bizi itxaropenaren luzatzearekin batera, batezbesteko adina igotzea eragiten da. Piramidearen gailurretik zahartzea.
 - Migrazioak: fluxuen norabidearen arabera, zahartze edo gaztetze gertatu ahal da.

Zahartzearen ondorioak

- Dependentsia-tasa igotzea.
- Lan populazioaren zahartzea.
- Osasunaren gastuak igotzea.
- Laguntza-zerbitzuen gastuak handitzea.
- Pentsioen kostuak igotzea.